



3 KULTURA
Kultur eskaintza oparoa dakar uztailak

Kultura-sailak uztailean kultura kalera ateratzeko ahalegina egin du. Batez ere, Okendo bihurtuko da kultura-areto, bi pelikula eta bi kale antzerki programatu baitituzte bertan. Gainera, larunbat goizetan ikastaro ezberdinak antolatu ditu Udalak, larunbatean hasi ziren baratzarekin Orián eta ondorengo asteetan ehun apainketa Zumaburuan, malabreak Sasotetan eta birziklatzea San Pedro Eliza aurrean.

4-5 IKASKETAK
Leinn sisteman ikasten ari dira bi lasarteoriatar

Iñigo Arrieta eta Aigor Aizpuru Mondragon Unibertsitateko lehen urteko ikasleak dira. Finlandiatik gurera ekarritako Lennin sisteman oinarritutako gradua ikasten dihardute MURen Irungo fakultatean. Arrakasta handia izan dute ikasketak hauek Europako leku askotan, eta Euskal Herrira ere iritsi da. Graduan, Txina, San Frantzisko, India edo Finlandia ezagutuko dituzte.



I. Mus txapelketan Amantegi-Egaña bikotea garaile

Patata tortila lehiaketa berriz, Mar Lojok irabazi zuen

Euskal Herrian errotua dago oso mus jokoa, eta Lasarte-Oria ez da gutxiago. Larunbat arratsaldean herri honetan karta jokoa bizi-bizirik dagoela ikusi genuen, izan ere, herriko ostalarien elkarteak antolatutako I. mus txapelketaren finala izan baikenuen larunbatean Okendon. Era berean, mus azkarreko txapelketa eta patata tortila lehiaketak ere antolatu zituzten.

Giro ederra izan zen larunbat arratsaldean Okendo plazan.

Museko final handia

Azken bi hilabeteotan, izena eman duten 34 bikoteen artean onenak izan direla erakutsi dute Mikel Chanca eta Jose Carlos Palomares zein Gorka Amantegi eta Agus Egaña osatutako bikoteek. Finalan, azken hauek atera ziren garaile, 2-1 puntuko emaitzaz.

Lehen puntua lehiatua izan zen, 4-3 geratu baitziren partidei dagokienez, eta azkenan Egaña eta Amantegik eskuratu zuten lehen puntu baliotsua. Bigarrena, erraztasunez irabazi zuten Palomares eta Chancak, 1-4ko emaitzaz. Hirugarren puntu erabakigarria borrokatua izan bazen ere (4-3), Amantegi-Egaña bikotea izan zen garaile partida luze baten ostean.



Mus lehiaketako txapeldun eta txapeldun-ordeak sariak alboan dituztela antolatzaile eta Pablo Barrio alkatearekin batera.

I. Patata tortila lehiaketa

Musarekin nahikoa ez, eta herriko ostalariek patata tortila lehiaketa antolatu zuten larunbatean. Denera, 11 hautagai aurkeztu ziren eta herriko tabernetako hiru sukaldarik egin zituzten epaile lanak.

Azkenean, Mar Lojok irabazi zuen, epaimahaiak bere amak Galiziatik ekarritako arrautza eta patatekin egindako tortila onena zela iritzita.

Sari-banaketa amaieran

Arratsaldea tenore onean amaitzeko, sari-banaketa egin zuten. ardoa, makilak, kape-lak, kopak, txanpaina... denetik eraman zuten irabazleek etxera eta bapo jarri ziren lehiaketara aurkeztu ziren patata tortila guztiak jaten.



Herriko muslariek arratsalde pasa polita egin zuten elkarri enbidoka.



IEFPS USURBIL GLHBI

MATRIKULA uztailaren 5etik 11ra



Goi-mailako Erdi-mailako HEZIKETA ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administratza



Mantenimientua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Adituak dio



Txema Vallés

Kazetaria

Igandeak ez dira lasterketa egunak...

Hipodromoak uztailearen 16tik aurrera bere historia luzean, ia ehun urte, izan duen denboraldirik atipikoena hasiko du. Ia munduko osoko krisi ekonomikoak bultzatuta, hipodromoko kudeatzaileek ohiko egitaraua baztertu eta PMU sustatzaile frantsesentzat aproposago den bat prestatu dute aurten. Azken hauek zaldi lasterketen industria kontrolatzen dute Europa mailako apustuak medio. Apustu hauek zuzenean lotuta daude telebistarekin eta honek hipodromoen etorkizuna baldintzatu du diru beharra dela eta. Hemen egoera ez da bestelakoa eta munduko afiziorik hobereenak egoera berrira moldatu behar badu, egingo du.

Egutegi berria oztopo izanda, ikusle kopurua murriztagoa izango da. Soilik zale fidelenak gerturako dira Zubietara. Hala ere, kudeatzaileek mantendu dute Donostiako Aste Nagusiarekin bat egin ohi duen lasterketa aste garrantzitsua. Igandean, abuztuaren 12an, Kutxa sari klasikoa jokatu da eta bertan izango dira zaldi onenak lehian. Abuztuaren 15ak, denboraldiko egun handia izaten jarraituko du eta Urrezko Kopa saria jokatu da. Bertan lehiatuko dira fondoko zaldi hobereenak, hauetako asko Frantziako zalditegi garrantzitsuenetik iritsitakoak, Dèldi du Galop-etik esaterako. Lasterketa astea igandean, abuztuaren 19an bukatuko da Eusko Jaurlaritza sariarekin. Aste honetan izango dira ziur Zubietan ikusle eta zale-tu gehien eta gogora ekarriko dizkigu 80. hamarkadan bizitako lasterketa arratsalde jendetsuak.

Uda amaitzeko Donostia saria jokatu da. 2.800 metroko lasterketaren gogortasunak ikuskizun paregabea erakutsiko du beste behin ere.

Zaldi lasterketen dizdira galduta

Udan herrira, hipodromoa Donostiaren jabetzan egon arren, jendea erakartzen duten zaldi lasterketak iristen dira. XX. mende hasieran eraiki zen hipodromoa eta Alfontso XIII. erregeak inauguratuta, garai hartako errege eta mandatariek erakarri zituen. Honen inguruan herrian mugimendu asko egon zen, jockeyak hilabete luzeak pasatzen zituzten herrian, hemen bizi zirela esan daiteke ia eta hainbat herritar ziren bertan lan egiten zutenak ere, ukuilu lanetan esaterako, beste eginkizunen artean.

High class derituz horrekin lotuta egon da historikoki zaldi lasterketen mundua baina gurean herritarren artean lasterketak ikustera joateko ohitura oso errotuta izan da betidanik. Azken urteetan ikusle kopurua nabarmen jaistarekin

batera, hipodromoko denboraldia murriztu eta ez da gara bateko giro bizia, jendetsua nabari zaldi lasterketen inguruan. Badirudi galdu egin dela ohitura hau eta pena da. Apustuetan, akaso, bizi dugun egoera ekonomiko zaila nabaritu da, baina hipodromorako sarreraren salneurriari erreparatuz, egoten zaion elitismoa galdu dela esan daiteke, subjektiboa izan daitekeen arren, ez da hain garestia bertan sartzea lehen mailako lasterketak ikusten direla kontutan izanda.

Uztaila eta irailan, egun bateko sarrerak 7 euroko kostua du aurten eta abuztuaren berriz, 10 eurokoa. Zinemara asteburuan joateagatik 7,30euro ordaintzen ditugu dagoneko eta lehen mailako futbol partida bat ikusteagatik Erreal-Mallorca adibidez, 25eurotik gora.

Hitz eta pitz

Zaldi lasterketetara joaten al zara?



Igor Alkain

Igandero ez, baina tarteka joaten gara zaldi lasterketak ikustera. Gehiena dagoen giroa gustatzen zait, giro polita egoten da, zaldia ikusi eta apostu pare bat edo hiru egiten ditugu, ez diru asko. Batzuetan asmatzen dugu, baina beste batzuetan ez. Ondo dago hipodromoa hortxe bertan izatea, entretenimendu polita da igande arratsaldeetarako.



Kontxi Goenaga

Jada ez naiz joaten eta lehenago azkenengo karrera ikustera soilik. Zaldia gustatzen zaizkit, baina karrera bat edo beste nahikoa litzateke, batetik bestera tarte luzea da. Lehen lanera joaten nintzen, Sari Nagusiaren ondoren egiten zuten luntxa preparatzera. Umeak ginenean, 1950 inguruan, sarrerarik ez eta atean egoten ginen, jende elegantea ikusteko.



Maider Tolarexipi

Joan izan gara umeekin, norbaitek gonbidapenak oparitu, baina bestela ez, sarrerak denok joateko garesti xamarrek dira. Joan garenean gustatu zaie umei, eta apustuak ere egin izan ditugu, nola den, zenbat kostatzen den eta abar ikusi dezaten. Txikitan gu ere joaten ginen gurasoekin. Ondo dago hipodromoa hor egotea, gertutasunak joate a errazten du.



Maria Jesus Aristi

Igandero joaten naiz, txikitant amarekin, nire aitak urte askoan eman zuen eta banderarekin irteera. Orduan ez zegoen kajoirik, goma bat soilik. Dena gustatzen zait, apustuak ere bai: Etxean zaldi lasterketak telebistaz ikusi, egunkariak esandakoa kontuan izan, zaldunak zientzuzk diren, pisua... Gaur egun Alvaro Gomez gustatzen zait, garai batean Carudel eta Roman Martin.

Iruditan



1920. hamarkadako zaldi lasterketa hipodromoan. Galardi.

Hipodromoa eta zaldi lasterketei lotutako iragana

Udan zaldi lasterketa garaia hasten da hipodromoan. 20. hamarkadako irudian, Vicente Diez jockeya azaltzen zaigu. Garaiki ezagunenetakoa zen eta Lasarte-Oriko bizi zen bolada luzeetan beste hainbat lasterkaririk bezala. Hipodromoa 1916. urteko uztailearen 2an inauguratu zuen Alfontso XIII. erregeak. European lehen Mundu Gerra hasita, Frantzia eta Belgikako zalditokiak itxi ziren eta mugatik gertu kokatzen zen bat eraikitzea egoki ikusi zuten garaiok agintariek. 100 egunetan egin zen eta lehen urtean 50.000 peza banatu ziren b erlan sari ezberdinetan.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

Lasarte-Oriako Udala
Euskara BatzordeaEUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

KULTURA

Uztailean, kultura kalera aterako da

Zinema, kale antzerkia eta artisauak egongo dira Okendon. Herriko gaztetxoek hainbat gairi buruz ikasteko aukera dute hurrengo hiru larunbatetan

Uztailean kultura kalera ateratzeko ahalegina egin du kultura sailak, eta Okendo kultura-areto bihurtuko da. Bi pelikula eta bi kale antzerki programatu dituzte. Gainera, larunbat goizetan haurrentzat ikastaro ezberdinak antolatu ditu Udalak, larunbatean hasi ziren baratzarekin Orian eta ondorengo asteetan ehun apainketa izango da Zumaburuan, malabareak Sasoetan eta birziklatzea San Pedro Elizaren aurrean.



Sendabelarretan aditua den Fermin Goenagak, landare, ukendu eta edari ezberdinak ekarri zituen herritarrek probatzeko.

pilotalekuan egiten zen kaleko zinea berreskuratu da.

Kultura sailak jakinarazi du, eguraldi txarra egingo balu, pelikulak Loidi-Barrengo pilotalekuan emango direla.

Antzerkia kalean

Udako Kale Antzerkiari dago-kionez, hiru emanaldi izango dira herrian.

Haurrentzat, hilaren 13an ostirala, eguerdiko 12etan "Mr. Frack" ikusi ahal izango da Okendon. Hurrengo ostiralen hilaren 20an gaueko 22:00 Okendon bertan helduontzat "Carbon Club" eskainiko da eta azkenik, urtero bezala hilaren 26an Santa Ana parodia egingo da Okendon gaue-

ko 22:00etatik aurrera.

Santa Ana egunean ohiko ekitaldiak burutuko dira, eta bestalde, Santa Anako artisau azoka, Okendon burutuko da hilaren 22an igandea, egun osoan.

Ikastaroak haurrentzat

Era berean, 8-14 urte bitarteko gaztetxoentzat ikastaroak ere antolatu ditu Kultura Sailak uztailean zehar. Udako haur ikastaro hauek, larunbat goizetan 10:00ak eta 13:00ak bitartean burutuko dira.

Larunbatean baratzta ikastaroa izan zen Orian. Uztailean 14an ehun apainketa ikastaroa izango da Isla plazan, 21ean malabare ikasta-

roa Andatza plazan eta azkenik, 28an birziklatze ikastaroa Elizatze plazan.

Ikastaroen antolatzaileek jakinarazi dutenez, ehun apainketarako kamiseta, txaleko, alkandora edota txapela, eta birziklatzeko ikastarorako plastikozko botilak, tetra-brik esne ontziak edota kartoiak eraman behar dituzte gazteek.

Oriako tailerrak, lehenak

Amaia Agirre eta Fermin Goenaga adituek etxe-baratzte eta sendabelarren inguruko azalpenak eman zituzten interes handia jarri zuten herritarren aurrean, gainera, era praktikokan parte-hartzeko aukera eduki zuten.

MUSIKA

Musika eskolan matrikula garaia

Lasarte-Oriako Udala Musika Eskolako matrikula egiteko epea uztailean 2ean zabaldu zen.

Aurrematrikula egin eta plaza duten herritarrek orain dute behin betikoa izena emateko epea.

Matrikula egitera Manuel Lekuona kultur etxeko bigarren solairura joan behar da, goizez 9:00etatik 13:00etara eta azken eguna uztailean 13a da.

Era berean, irailaren 3tik 14ra plaza libreak dituzten Musika Hizkuntza eta instrumentuetara apuntatzeko aukera izango dela jakin arazten dute.

BIYAK-BAT

Guggenheim museora irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Bilbo eta Guggenheim museora irteera antolatu du uztailean 19, ostegunera-ko.

Autobusa goizeko 9:00etan aterako da elkarteko egoitza aurretik. Lehenik Guggenheim museoa bisitatuko dute.

Bazkaria Argiontzi jate-txean izango da eta ondorengo, Bilbo ikusteko aukera izango da 19:30ak arte.

Txangoaren prezioa 34 eurotako da bazkieentzat eta bazkide ez diren 38 euro ordaindu beharko dituzte. Prezio honetan autobusa, bazkaria eta museoko txartela sartzen dira. Izena ematea gaur 10:30ean irekiko dute.

EAJ, PSE eta PPren mozioaren aurka

Lasarte-Oriako Bilduk prentsaurrekoa eskaini zuen ostiralean biharko (18:30) Osoko Bilkuran EAJ, PSOE eta PP-k onartzeko asmoa duten mozioari erantzunez.

Hiru alderdi horiek, San Markoseko mankomunitatean Lasarte-Oriako ordezkari den Bilduko Nerea Sanchez balio-gabetzea eskatzen dute.

Horren aurrean, Bilduk salatu du mozio hau izendapen bat balio-gabetzetik "haragotz" doala eta errauskailua Zubietan jartzearen aldeko pausutzat ikusten dute.

Sanmarkoren garrantziaz

Barrio alkateak aipatu duenez, egun, San Markoseko mankomunitateak "garrantzia handia" dauka, Partzuergoko zati handi bat suposatzen



Agerraldi jendetsua egin zuen Bilduk ostiralean, Okendo plazan.

duelako eta bertan hartuko diren erabakiek etorkizunean "eragina" izango dutelako.

Mozioa onartzekotan, Sanmarkoko mankomunitatean Lasarte-Oriako duen ordezkaria errauskailuaren kontrakoa izatetik, aldekoa izatera pasatuko

lizitateke, eta "kezkatuta" azaldu dira horrek eduki ditzakeen ondorioekin.

Beraz, biharko Udalbatza herritarrez betetzeko deialdia egin dute, Lasarte-Oriak errauskailurik nahi ez duela argi uzteko.



Saharar hurrei harrera egin die udalak

Urtero moduan herrira etorri dira uda pasatzera Saharako haurrak. Aurten zazi dira gurera etorritakoak herriko sei familiarekin. Abuztuaren 24a bitartean gure artean izango ditugu eta udalak harrera ekitaldia egin nahi izan zuten ostiralean Villa Mirentxun.

Bertan Gorka Lizarraga zinegotziak ongi etorria eman eta Porrotx pailazoak magia egin zien. Opariak ere ekarri zizkieten. Saharako hurrek Ttakunek antolatzen dituen udako txokoetan parte hartzen dute lehen urtez bertako hurrekin harremandu daitezkeen.

IGERIKETA.-

Mitxelena Udako Espainiako txapelketara

Emaizta onak izan ditu Buruntzaldea IKTk Gipuzkoako eta Euskadiko Udako Txapelketan Iñigo Ibarburu herritarra Gipuzkoako txapelduna da estilo librean 50 eta 100 metrotan

Gipuzkoako eta Euskadiko Udako Igeriketa Txapelketak jokatu dira aurreko asteburuetan eta Buruntzaldea IKTk igerilariak maila onean aritu dira. Euskadikoan zilarrezko hiru domina, bi Itsaso Tolosak eta bat Haitz Mitxelenak, eta brontzezko bat ekarri zituzten, 14 marka pertsonal eta 12 errekor berri. Gipuzkoakoan, Haitz Mitxelena nabarmendu zen eta Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuek 200 tximeletako proban. Orain Espainiako Txapelketen txanda izango da. Datorren astean Itsaso Tolosa Junior mailakoan izango da Sevillan, ondorengoan Iñigo Ibarburu Bartzelonan eta hilaren azken astean berriro ere Itsaso eta Haitz Mitxelena Terrasan.



Buruntzaldeako igerilariak bikain aritu dira Euskadiko eta Gipuzkoako Udako txapelketan.

Euskal Herriko Udarako Txapelketetan izan ziren herriko igerilariak ekaina amaieran, taldeko infantilak Tolosan eta junior, promesa eta absolutuak Gasteizeko igerileku luzean. Beste behin ere herriko taldeko igerilariak txukun aritu ziren marka pertsonalnak eta dominak lortuz.

Infantiletan, Iñigo Ibarburu ez zuen parte hartu, Gasteizen zelako igerileku luzean absolutuekin lehiatzen, eta dominak lortzeko aukera galdu zuen. Jone Vazquez bikain aritu zen eta Gipuzkoako txapelketako denborak hobetu zituen 800 m. libre eta 400 m. libre probatan. Mikel Sotok 100 m. bular, 100 m. libre eta 400 m. libre probatan

parte hartu eta lehenengoan 5. izan zen. Naiara Lizasok ez zuen parte hartu oportretan zegoelako.

Junior, promesa eta absolutuen mailan, Mikel Esnal, Haitz Mitxelena, Mikel Arribillaga, Naroa Goikoetxea eta Itsaso Tolosa lehiatu ziren. Esnalek txapelketa bikaina egin zuen, 100 m. eta 50 m. libre probatan marka hobetu zuen.

Haitz Mitxelenak ere marka pertsonalak lortu zituen hiru probatan, txapeldunorde izan zen promesa mailako 100 m. eta 200 m. tximeleta probatan, eta azken honetan hirugarren absolutu mailan.

Itsaso Tolosak ere txapelketa ona egin zuen. 50 m. bizkar eta 100 m. tximeleta probatan

marka pertsonala hobetu zuen, junior mailan, Euskadiko txapeldunorde izan zen 100 m. eta 200 m. bizkar probatan eta absolutu mailan txapeldunorde 200 m. bizkar proban.

Naroa Goikoetxea laugarren izan zen promesa mailan 50 m. bular proban eta Mikel Arribillaga txukun aritu zen 100 m. libre eta 100 m. bizkar probatan.

Gipuzkoako txapelketa

Era berean, emaitza onak lortu

zituzten igerilariak duela bi aste Irunen, Gipuzkoako Udako Txapelketan. Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuen Haitz Mitxelenak 200 m. tximeletako proban, Euskadikoan parte hartzeko Jone Vazquez-ek 400 libre eta 800 librean, Mikel Sotok 100 libre eta 200 librean eta mutilen errelebo taldeak ere bai lau probatan.

Gainera, Iñigo Ibarburu Gipuzkoako Txapeldun izan zen 100 m. libre eta 50 m.

libre probatan eta txapeldunorde 100 m. estiloak eta 100 m. tximeletan. Bai nesketan eta baita mutiletan ere errelebo talde guztiek hobetu zituzten euren markak, 8 errekor berri jarri zituzten, eta bakarka, 28 marka pertsonal hobetu zituzten.

Borja Apeztegiak adierazi duenez, "igerilariak oso fin ibili dira eta emaitza garrantzitsu ugari lortu dituzte. Orokorrean taldeko guztiek maila altuan egin dute igeri".

Ostadarreko infantilak Donosti Cup-en

Ostadar SKT-ko Infantilen Ohorezkol taldea Donosti Cup lehiaketan izan zen lehengo astean. Joxan Beldarrainek zuzentzen duen taldeak bere multzoko irabazlea izan zen. Tamalez, Intxaurren Kostkas-ek kaleratu zuen ostegunean.

Uztailaren 2an hasi zen Donosti Cup lehiaketa eta horrekin batera, Gipuzkoako hainbat zelaietan futbol partidak ikusteko aukera izan da aste honetan. Lasarte-Oriak ordezkari bat zuen aurten lehiaketan, Ostadar SKT-ko infantilen Ohorezkoa.

Lehengo egunean Sanse- ren aurka jokatu zuen eta 5-2 gailendu zen herriko taldea. Asteartean, berriz, Leones aurka bana berdindu zuen eta atzo arratsaldean 12-0 irabazi zuen Juventudes de America taldeari.



Ostadarreko infantil ohorezkoa ongi ibili zen lehen fasean.

TXEMA VALLES

Lehiaketatik kanpo

Era honetara, bere multzoko lehenengo bezala sailkatu eta Intxaurrendoren aurka jokatu zuen final zortzirenetan Lasarte-Oriako taldeak.

Joxan Beldarrainen mutilek ezin izan zuten Kostkas-Intxaurren taldea garaitu. Talde donostiarrak hiru gol egin zizkion Ostadarri eta lehiaketatik kanpo utzi zuen.

LABURRAK.-

Texas Lasarte-aren web gune berria

Lasarte-Oriako Texas Lasarte-rrak futbol taldearen web orrialde berriari buruz eman genuen ekainean, baina orduan okerreko helbidea argitaratu genuen.

Taldeko zuzendaritzak ohartarazi digunez, helbide berria cftexas.es.tl da. Bertan herriko futbol elkartearen talde ezberdinen 2011-2012 denboraldi bukaerako eta hurrengo denboraldi-ko nondik norakoak aurki daitezke, hala nola, argazkiak edo taldeetako jokalariek.

Udako ordutegia kiroldegian

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, udako ordutegia dagoela indarrean.

Ordutegi honetan zehaztutakoaren arabera, kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.

Kirol Gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara irekiko ditu ateak, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.



— Agenda —

Ostirala 13, Okendo plaza, 12:00etan



Malabarak eta akrobaziak

“Mr. Frack” haurrentzako kale antzerkia eskainiko du Xabier Larreak. Mr. Frack ausarta eta dotorea da, serioa dirudien arren, kaleko egunerokotasuna hankaz gora jartzeko gai da. Modu atsegin eta dibertigarrian, besteak beste, akrobazia teknikak eta malabarak nahasten ditu. Euskaraz.

Azoka

OKENDO PLAZA
Igandea 22

Santa Ana egunaren ospakizunen barruan, artisau azoka egingo da.



Andoain

Erakusketa

BASTERO KULTURGUNEA
Uztailaren 11ra arte

Donejakue Bidearen Lagunen Fundazioak 25 urte betetzen dituela eta, erakusketa ibiltari bat antolatzen ari dira "Barnealdeko euskal bidea" edo "San Adriango tunela" zeharkatzen duten herrietan.

Astigarraga

Zinea

FORU PLAZA
Igandea 15, 22:30ean

Zinema kalean zikloaren barruan, "Lagun Mina" filma eskainiko dute.

Ikastaroa

KULTUR ETXEAN
Zehazteko

Erraldoiak eramaen ikasteko tailerra egingo dute uztailaren 16ko astean. Interesatuak Astigarragako kultur etxean izena eman behar dute. Doan.

Lasarte-Oria

Zinea

OKENDO PLAZA

Osteguna 19, 22:00etan

Udako Zine zikloaren barruan, "Extraterrestre" filma eskainiko dute, Okendo zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz.

Antzerkia

OKENDO PLAZA

Ostirala 20, 22:00etan

"Carbon Club" kale antzerkia.

Osteguna 26, 22:00etan

Urtean zehar herrian gertatu denaren laburpena modu ironiko eta komikoan Santa Ana eguneko parodian.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIKO TERRAZA

Ostirala 13, 20:30ean

Tutti Frutti Project taldearen jazz entzuteko aukera paregabea.

Ikastaroa

ZUMABURU ALDEA

Larunbata 14, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako tailerra egingo dute. Ehunak era ezberdinetan nola apaindu ikasiko dute.

SASOETA ALDEA

Larunbata 21, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako tailerra egingo dute. Malabareak egiten ikasiko dute.

ELIZATZE PLAZA

Larunbata 28, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako tailerra egingo dute. Materialak birziklatuz egin daitezkeen gauzak ikasiko dituzte.

Jaiak

ORIAKO AUZOAN

Astelehena 16

Karmengo amaren jaiak ospatuko dituzte oriatarrek.

ERDIALDEA

Osteguna 26, eguerdia

Santa Ana eguneko ospakizunak egingo dira. Brigitarren plazan luntxa eta Santa Ana karkaban dantza egingo da.

— Herritarren txokoa —

Galdutako txaketa beltza

Sorgin dantzako azken entseguaren ondoren, txaketa beltz bat aurkitu zen Landaberri BHIko patioan.

Ttaku kultur elkarteko bulegora hurbildu dadila jabea hau eskuratze-ko.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Hirigintza saila

Lasarte-Oriako udalak gogorarazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.



Santa Ana parodia

Ttaku kultur elkarteak urteko antolatzen duen Santa Ana parodiako entseguak hasiko direla jakinarazten du.

Parodian parte hartzeko interesa dutenek, bihar 19:00etan bilera izango da Arrieskalleta elkartearen.

Bilera honetara joan ahal ezin duenak, uztailaren 16tik 24ra, 19:00etatik 21:00etara Manuel Lekuona kultur-etxean egingo diren entseguetara hurbiltzea du.

Bestalde, Santa Ana egunean Ama brigitarren komentuan luntxa egiten dela gogora arazten du. Honetan herritar guztiek parte hartu dezakete.

— Haurren txokoa —

Bilatu hitz hauen sinonimoak

I	I	V	E	Q	S	E	S	N	I	D	X	G	A	M	J	C	T
B	B	F	X	N	G	N	H	X	P	E	X	B	H	A	V	A	V
R	X	Y	R	I	R	N	R	M	V	B	Y	Z	N	A	N	N	H
V	S	O	P	A	L	E	M	A	N	I	A	V	K	X	U	A	Y
N	A	T	V	T	N	D	K	A	L	A	S	K	A	H	I	D	L
A	O	C	S	A	D	C	J	O	N	A	O	V	J	T	I	A	X
U	C	V	Z	N	I	K	I	Z	L	Y	N	A	I	A	I	K	M
S	M	B	Y	Z	S	Z	A	Z	L	Q	I	Q	V	U	C	P	
T	N	X	A	S	E	J	U	U	V	N	I	B	H	A	W	Q	P
R	G	D	H	L	I	S	A	R	B	U	U	M	C	X	X	U	P
I	G	P	O	R	T	U	G	A	L	L	C	O	I	G	N	Q	F
A	G	P	A	R	Q	I	L	U	U	X	L	N	A	W	T	B	
C	A	Y	N	U	B	L	W	B	P	D	Y	O	G	N	X	K	N
O	P	N	L	R	A	U	W	N	R	P	D	C	L	A	K	A	H
Y	K	N	I	R	K	I	C	O	R	O	W	W	A	P	I	M	U
P	X	J	T	K	D	L	P	S	R	B	K	T	S	E	R	L	
L	J	S	J	O	N	G	H	A	L	P	I	T	E	E	X	R	K
R	U	N	Y	V	M	E	T	J	T	L	X	R	R	T	V	E	U
A	J	J	Y	K	X	R	G	A	W	I	G	U	R	A	A	H	N
W	P	D	D	Z	G	D	S	R	U	V	S	J	A	I	D	N	I
F	A	Y	T	R	B	B	Z	D	A	U	N	M	C	R	R	Q	M
O	C	I	X	E	M	G	I	N	S	B	B	B	B	C	K	W	V

koko11koko.com

- Barreiatu
- Larri
- Jaiki
- Erloju
- Ezizen
- Tente
- Berna
- Berritsu
- Hits
- Doi
- Harritu
- Garrasi
- Gabe
- Xamur

- Zutik
- Tunditu
- Triste
- Sakabanatu
- Ondutari
- Ohu
- Justu
- Izengoit
- Hiztun
- Hanka
- Estu
- Bigun
- Barik
- Altxa
- Erantzuna:

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Sasoeta-Zumaburu ikastetxea LH6 maila

"Festak inoiz baino parte hartzaileagoak izan dira"

► *Udala pozik azaldu da San Pedrotako egitarauak herritarren artean izandako erantzunarekin*

Ostegunean egindako agerraldian Pablo Barrio alkateak eta Taxio Arrizabalaga festa batzorde buruak San Pedro jaien balorazioa egin zuten. Aurten herriko jaiak ezin hobekak izan direla adierazi zuten. Horrekin batera, herritarren parte hartze handiaz gain orain arteko bi jai ereduaren koordinazioa eta uztartzea lortu dela azpimarratu zuten.

Maidar AZURMENDI

Pablo Barrio alkatea eta Taxio Arrizabalaga festa batzorde burua izan ziren ostegunean herriko festen balorazioa egiteaz arduratu zirenak.

Udal ordezkariak herritarren parte hartzea azpimarratu nahi izan zuten bereziki eta alkatearen hitzetan "festak inoiz baino parte hartzaileagoak eta aktiboak izan dira". Jendea kalera atera dela inoiz baino nabarmenagoa izan dela ere azaldu zuten.

Taxio Arrizabalagak adierazi zuenez oso pozik dago orokorrean San Pedro jaietan ikusitakoarekin, "parte hartze bilerak egin genituen egitaraua osatzeko eta honen ondorioz oso nabaria izan da herritarren inplikazioa".

Honekin batera zinegotziak San Pedro hauek herritar guztien jaiak izan direla azpimarratu zuen eta horregatik alkateak aurten ez du txupinik bota. "Bien jaurtiketa herritarren esku utzi nahi izan da, jaiak hain juxtu herritarrenak direlako eta eurek behar dutelako protagonismo osoa, ez politikoe".

Okendo bihotza

Sorgin Jaiak eta txosna Oken don izateak emaitza ezin hobekak eman ditu hauen ustetan eta "plaza herri gunea, festaren muin, festaren bihotz bilakatu da".

Orain artean herrian izandako bi jai ereduak, elkar

koordinatzea lortu da lehenengoz egitarauetan, "eta emaitza paregabea izan da". Okendon kokatutako agertokiak, herriko eskenatoki bilakatu da eta hiru kolektiboren artean konpartitzeak ere, oso ongi funtzionatu du Taxio Arrizabalagak azpimarratu moduan, "Ttakun, Sorgin Jaiak eta udalaren arteko elkarlana txalagarria izan da benetan". Honekin batera eskerrak eman nahi izan zizkien "jaiak aurrera ateratzeko esfortzu handia egin dutelako elkarre hauek beste batzuen artean".

Berrikuntza positiboak

Aurtengo berrikuntzei dagokionez, bi txupinak arrakastatsuak izan direla azaldu zuten, "bitan jende asko bildu zen eta honek eragin du jaien hasiera inoiz baino indartsuagoa izatea". Omenduen papezari dagokionez, "aurten protagonismo berezia izan dute eta kultur etxera omenaldia eramatearekin asmatu dugu. Ekimena hunkigarria izan zen eta inoiz baino jendetsuagoa. Hiru kolektibori omenaldi hau egitea oso positiboa izan dela iruditu zaigu".

Datorren urteko jaiak antolatzeke herritarrekin bilerak egiteko asmoa azaldu du udalak "parte hartze bilerak martxan jartzea espero dugu". Hala ere, herritarrek euren proposamenak, kexak edota bestelako iritziak dagoeneko helaraztera animatu nahi izan dituzte.



Haurren txupinazioa berrikuntzetako bat izan da eta arrakasta ikusita datorren urtean hau errepikatzea litekeena da.



Pablo Barrio eta Taxio Arrizabalaga oso pozik San Pedro jaiak eman dutenarekin.

ANAIAK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA !

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

